



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2024KO APIRILAREN 15EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIODE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2024KO APIRILAREN 17 ETA MAIATZAREN 8RAKO DEITUTAKO GREBAN ZEHAR BIZKAIKO ESKU-HARTZE SOZIALAREN SEKTOREAN GIZARTEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA BERMATZEN DUENA.

LAB eta ESK sindikatuek greba deitu dute Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektorean. Greba 2024ko apirilaren 17an egingo da, lanaldi osoan; apirilaren 16ko gaueko txandan hasiko da, 00:00etan, eta apirilaren 17ko gaueko txandan amaituko da, 24:00etan.

Bestalde, ELA sindikatuak greba deitu du Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektorean, apirilaren 17an eta maiatzaren 8an. Greba 2024ko apirilaren 17an egingo da, lanaldi osoan; apirilaren 16ko gaueko txandan hasiko da, 00:00etan, eta apirilaren 17ko gaueko txandan amaituko da, 24:00etan. Era berean, maiatzaren 8ko lanaldia era berean egingo da, lanaldi osoan, maiatzaren 6ko gaueko txandan 00:00etan hasita eta maiatzaren 8ko gaueko txandan 24:00etan amaituta.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa,

zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteko komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Segidakoak ez diren bi eguneko greba da, lanaldi osoan, 2024ko apirilaren 17an eta maiatzaren 8an, lanaldi osoan, Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektorean.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko artikulatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztea du helburu, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioak garatuz, funtsean pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bitartez.

Era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2028 Legearen 6.1 artikulua honako funtsezko helburu hauek ezartzen ditu: autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasunetik eratorritako premia pertsonal eta familiarrak, babesgabetasun-egoerek eta bazterketa-egoerek sortutakoak, larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonal eta familiarrak prebenitu eta artatzea, bai eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea ere.

Bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotakoak, botere publikoei dagokie horiek bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. 10.1 artikulua ezartzen du pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dela. Era berean, Konstituzioaren 49. artikulua botere publikoei agintzen die aurreikusteko, tratatzeko, errehabilitatzeko eta integratzeko politika bat egitea urritu fisiko, sensorial eta psikikoei, eta behar duten arreta espezializatua emango diete, eta bereziki babestuko dituzte titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak baliatzeko.

Osasunaren babesa, berriz, herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidea da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948), 25.1 artikuluan, honako hau dio: «pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea».

Ildo beretik doaz Europako Kontseiluaren Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE 1966).

Aurrekoaren ondorioz, Bizkaiko esku-hartze sozialeko sektoreko langileei lanaldi osoko bi egun ez jarrai grebarako deialdia egin zaiela iragarri denez, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu behar ditu funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola ziurtatzeko, eta bateragarri egin behar ditu erkidegoaren interes orokorra – «funtsezkotzat» jotako zerbitzuak legez aintzat hartzean inplizitua – eta deitutako langileek grebarako duten eskubidea, funtsezko edukia baita ere. Horretarako, honako inguruabar hauek hartu behar dira kontuan:

Esan bezala, esku-hartze sozialaren sektoreak hainbat zerbitzuren bidez ematen ditu zerbitzuak: ostatu-zerbitzuak, eguneko zerbitzuak, adingabeentzako eta/edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak, etab.

Bizkaiko esku-hartze sozialeko sektorean ematen diren zerbitzuak aztertu ondoren, ukalezina da etxebizitzetan, eguneko zentroetan, egoitzetan eta abarretan egiten duen jarduerak garrantzi sozial handia duela. Zerbitzu hori jasotzen duten pertsonak nekez balia daitekeen kolektiboa osatzen dute, beren egoera subjektiboa eta pertsonala kontuan hartuta. Beraz, sektore honetan gutxieneko zerbitzurik finkatu gabe greba egiteak, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte nabarmen handiagoak eragin ditzake.

Arau horrek – konstituzionaltasuna aitortua du (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]) –, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik, non ezartzen baita «eskubide horren erabilera arautzen duen Legeak beharrezko bermeak ezarriko dituela erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko» – gobernu-agintaritzari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuetan funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko. Neurri horietako bat da jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea administrazio-ebazpen bidez, eta, ondorioz, langile kopuru jakin bati zerbitzu horiek egiteko deia egitea, langile horien lan-prestazioa behar baita.

Hala ere, eskumen hori baliatzeak ezin du greba-eskubidea de facto ezabatu, ezta edukiz hustu ere, bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuak betetzeak normaltasun-itxura eman dezan ahalbidetzen baitu, eta hori haren ezarpenak izan behar duen izaera murriztailea oinarri hartuta. Beraz, eta jada ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraituz, beharrezkoa da horiek mugatzeko zehaztapenean babestu beharreko beste oinarritzko eskubideekiko proportzionaltasun egokia gordetzea, bai eta murrizketa horiek behar bezala justifikatzea ere.

2018ko ekainaren 8an, alderdi interesdunek Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektorean 2018ko ekainaren 14rako eta 28rako deitutako grebarako gutxieneko zerbitzuei buruzko akordioaren akta sinatu zuten. Akta horretan honako hau jaso zen:

“1.- Honako kasu hauetan emango da zerbitzua jaiegun batean bezala:

- a) Gaueko harrera-zerbitzua (1.8)*
- b) Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzuak/etxebizitza babestuak (1.9.2)*
- c) Eguneko zerbitzua (2.23) Espezializatua: BEINKE eta BIDEBERRI, bi kasuetan bakarrik elikatzea.*
- d) Gaueko harrera-zerbitzu espezializatua (23.2) HONTZAK*
- e) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak (24.4.)*
- f) Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.45.)*
- g) Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (24.6.)*
- h) Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Zerbitzua (SMUS)*

2.- Bi (2) hezitzaile familia-elkarguneetan (FE) judizialki ezarritako bisitetarako (2.7.3.2.)

3.- Janari-zerbitzua bermatuko da ezarrita duten eguneko zentroetan, bai eta jantoki sozialetan ere. Horretarako, erraz prestatzen diren edo aurrez prestatzen diren janariak izan daitezten ahaleginduko gara, eta ordutegiak egokituko ditugu”.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko Autoak, 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan ezarritako lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ordeztu zituen inoren kargura ez dauden adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 Epaiak balio gabetzat jo zituen 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan adingabeko lagunduen egoitzetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak, lanegun batekoak, eta bidezkotzat jo zuen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoa izan behar zuela.

Ildo horretan, 2023ko maiatzaren 23ko, 2023ko ekainaren 19ko, 2023ko urriaren 27ko eta 2023ko abenduaren 14ko Gutxieneko Zerbitzuen Aginduak eman berri dira sektore horretan bertan deitutako lau grebetarako: 2023ko maiatzaren 24an eta 25ean, eta 2023ko ekainaren 20an eta 21ean, urriaren 30ean eta 31n, eta abenduaren 21ean eta 28an, hurrenez hurren.

Nahiz eta orduan agindutako gutxieneko zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionaletan – grebarena barne –. Horregatik, agindu honek orduan emandako gutxieneko zerbitzuei eusten die.

Hala ere, greba-deialdi honen eraginpean dauden gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan garatutako zerbitzuak ez dira mugatzen Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean jasotako zerbitzuetara soilik. Jarduera batzuk, batez ere gizarte- eta osasun-arlokoak, izaera mistoa dutenez, ez daude berariaz jasota Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan.

Aipatutako jardueren artean, honako hauek daude: urteko egun guztietan irekitzeko egoitza-arreta eskatzen dutenak, adikzioak dituzten pertsonentzako 24 orduak, eguneroko lanak bete behar dituztenak arreta eta zuzeneko gainbegiratzea, mantenua, medikazioak antolatzea, ostatua, egoera gatazkatsuak maneiatzea eta krisialdiak kudeatzea, hala nola komunitate terapeutikoetan emandako zerbitzuak, bai eta kontsumo-gelak ere, arreta eta gainbegiratze etengabea behar dutenak artatutako pertsonen osasuna arriskuan jar dezaketen kontsumoetan arriskuak saihesteko.

Nahiz eta 2023ko maiatzaren 23ko Aginduan ez ziren gutxieneko zerbitzu gisa sartu adikzioak dituzten pertsonentzako egoitza-arreta, azaldutakoa ikusita, ondorengo 2023ko ekainaren 19ko, 2023ko urriaren 27ko eta 2023ko abenduaren 14ko Aginduek beharrezkotzat jo zuten jaiegun baten baliokideak finkatzea.

Orain arte azaldutakoaren ondorioz, eta laburpen gisa, kontuan hartu behar da 2024ko apirilaren 17an eta maiatzaren 8an, deitutako greba-eskubidea lanaldi osoan gauzatzean beharrezkoa dela gutxieneko zerbitzuak ezartzea, grebak funtsezkoak direla bermatzeko. Hori dela eta, Jaurlaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Premisa horietatik abiatuta, ostatu- eta egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroetakoak bermatu beharko direla ezartzen da, gizarte-zerbitzuen zorroko 1.8, 1.9.2, 2.2.3, 2.3.2, 2.4.4, 2.4.5 eta 2.4.6 zerbitzuei eta Gizarte Larrialdietako Koordinazio Zerbitzuari (SMUS) dagozkienak, jaiegun batean bezala. Era berean, Familia Elkarguneetan judizialki ezarritako bisitak bermatu beharko dira, bi hezitailerekin.

Gai horri buruzko eskumen eskusiboa Gobernu Agintaritzari esleitzearen helburua da greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarritzko beste eskubide batzuk asetzerara bideratuta dauden heinean, Zuzenbidearen arabera bakarrik ezarri ahal izatea, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak bakarrik.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez lan-arloko legeria betearaztearen arloan bere gain hartutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalean jasotzen du eskumen hau: zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-

eskubidea erabiliz gero, komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko bermeak ezartzeko eskumena erabiltzea. Eskumen hori ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetzen du.

Horregatik guztiagatik, Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehena.- Bizkaiko esku-hartze sozialeko sektoreko langileek 2024ko apirilaren 17an eta maiatzaren 8an, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako gutxieneko zerbitzu hauek mantendu beharko dira:

Aipatutako lanak langileek egingo dituzte, ondoren adierazten den moduan:

1. Honako kasu hauetan emango da zerbitzua jaiegun batean bezala:
 - a) Gaueko harrera-zerbitzua (1.8).
 - b) Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako bizitoki/etxebizitza babestuko zerbitzuak (1.9.2).
 - c) Eguneko zerbitzu espezializatua (2.2.3), elikadura bakarrik.
 - d) Gaueko harrera-zerbitzu espezializatua (2.3.2).
 - e) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4).
 - f) Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5).
 - g) Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (2.4.6).
 - h) Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Zerbitzua (SMUS).
2. Bi hezitzaile Familia Elkarguneetan (FE) judizialki ezarritako bisitetarako (2.7.3.2).
3. Janari-zerbitzua bermatuko da ezarrita duten eguneko zentroetan, bai eta jantoki sozialetan ere. Horretarako, erraz prestatzen diren edo aurrez prestatzen diren janariak izan daitezten ahaleginduko gara, eta ordutegiak egokituko ditugu.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**